

Sortarazi Elkartean gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen ongizatearen eta autonomiaren alde lan egiten dugu, gizarteratzeko eta laneratzeko jardueren bidez, eta lanposturako hautaketa-prozesuan parte hartzea eskaintzen dizugu.

GIZARTE-HEZITZAILEA

GIZARTE ETA ENPLEGU ARLOKO ETA BIZITEGI-ARLOKO LAGUNTZA PROGRAMA

I. LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

✚ HELBURU OROKORRA:

Bazterketa-arriskuan dauden pertsonak gizarteratzen laguntzea, emantzipaziorako gizarlaguntza emanez, eta talde ororekin kontrastean, betiere pertsona bakoitzarentzat erreferentziazko gizarte-langileekin eta beharrezko gizarte-baliabideekin koordinatuta.

✚ FUNTZIOAK

	HARRERARI dagokionez.
1.	Pertsona zerbitzuan sartzeko baldintza egokiak prestatzea: unea, erritmoa...
2.	Parte-hartzaileen esku-hartze eta laguntza sozial pertsonalizaturako beharrezkoa den gizarte- eta hezkuntza-lotura sortzea.
	LAGUNTZA SOZIOLABORALari dagokionez
3.	PAP-a formulatzea: helburuak, ekintzak eta estrategiak. Abian jartzea kudeatzea Plana ebaluatzea (doitzea eta mantentzea). PAPen jarraipena egitea: tutoretzak, elkarrizketak...
4.	Programako parte-hartzaileak bizitza autonomorako prestatzea eta/edo trebakuntza-prozesuak babestea.
	BIZITEGI ARLOKO LAGUNTZARI dagokionez
5.	Emantzipazioko etxebizitza kudeatzea, gainbegiratzea eta bertan akonpainamendua egitea.
6.	Erabiltzaileari autonomia pertsonaleko eta <u>sozialeko trebetasunak (autozaintza eta eguneroko bizitza antolatzea)</u> bereganatzen trebatzea, eta parte-hartzaileei eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak egiteko laguntza egokia ematea, bereziki, elikadurarekin, higiene eta garbitasun pertsonalarekin, jantziekin eta etxebizitza mantentzeko garbiketarekin zerikusia duten etxeko lanak egiteko.
	PRESTAZIOEI dagokienez.
7.	Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak programatzea, antolatzea, garatzea eta ebaluatzea, planteatutako PAParen arabera, hainbat arlotan

	autonomia pertsonala garatzeko estrategia eta teknika egokienak aplikatuz: komunitarioa, soziosanitarioa, emozionala, oinarrizko zaintza pertsonaleko eta sozialeko trebetasunetan entrenatzea, kalteak murriztea...
8.	<u>Gizarte-laguntza</u> egokia ematea, autonomia pertsonala garatzeko eta bizitza independentea izateko. Beharrezkoa izan daiteke ingurunearekiko beste baliabide eta jarduera edo kudeaketa batzuetara laguntza fisikoa ematea, baita tailerrak edo jarduera espezifikoak dinamizatzea ere.
9.	Zerbitzuko parte-hartzaileak trebatzea gizarte-trebetasun aurreratuetan eta komunitateko zerbitzuen eskaintza ezagutzeko eta erabiltzeko jardueretan, arreta berezia jarritz aisialdirako hezkuntzan eta ESKU-HARTZE KOMUNITARIOKO metodologia desberdinak erabiliz.
10.	Zerbitzuko parte-hartzaileak bizitza autonomorako prestatzea eta/edo laneratu aurreko trebakuntza-prozesuei laguntzea, egoki den kasuetan.
JARRAIPENA ETA KOORDINAZIOA.	
11.	Esku-hartze prozesu osoan dagokion jarraipena egitea, arreta jarraitua eta integrala ziurtatuz.
12.	Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak beste baliabide batzuekin koordinatzea: lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko osasun-zerbitzuekin, enplegu-zerbitzuetan, etxebizitza-zerbitzuetan, etxebizitza eskuratzeko, egokitzeko eta mantentzeko jarduketak ezarriz.

II. ESKATUTAKO PROFILA

PRESTAKUNTZA

EZINBESTEKOAK	KONTUAN HARTUKO DA
Gizarte Hezkuntzako edo Gizarte Laneko Gradua.	Droga-mendetasunen prebentzioan eta/edo baztertua dauden pertsonekin eta atzerriarrei buruzko araudia
Komunitate bitartekaritzako prestakuntza.	Talde-dinamizazioa.
Hezkuntzan esku hartzeko metodologiari eta tresnei buruzko beste ezagutza batzuk.	Esku-hartze sozialaren arloko beste prestakuntza bat.
Bulegotika	Komunitate bitartekaritzako prestakuntza.
Euskara	Frantsesa, arabiera, ingelesa
Gidabaimena.	

ESPERIENTZIA

EZINBESTEKOA	KONTUAN HARTUKO DA
Esperientzia gizarteratze-prozesuetan dauden pertsonekin laguntza-harreman profesionalizatuak ezartzen.	Gizarte-baliabideen sarea ezagutzea eta
Esperientzia gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsoneri laguntzen.	Bizkaiko elkarteen ingurunea.
Esperientzia migratzaileei laguntzen.	Taldeak, tailerrak eta aisialdiko jarduerak dinamizatzeko esperientzia eta baliabideak.

BEHARREZKO GAITASUNAK EDO TREBETASUNAK

- ⇒ Komunikatzeko eta aktiboki entzuteko gaitasuna.
- ⇒ Pertsonak motibatze eta laguntzeko gaitasuna, haien hautaketak eta inguruabarrak errespetatuz.
- ⇒ Beharrak aztertze eta gaitasuna.
- ⇒ Hezkuntza-trebetasunak: sormena, enpatia eta asertibitatea.
- ⇒ Dinamismoa, proaktibitatea eta positibotasuna.
- ⇒ Ekimena eta egokitzeko gaitasuna.
- ⇒ Talde-lanerako erraztasuna.
- ⇒ Gizarte-sentsibiltatea eta gizarte-eremuan lan egiteko motibazioa.
- ⇒ Gatazkak konpontzeko gaitasuna.

III. LAN-BALDINTZAK

Lanaldi osoko kontratua, Bizkaiko Gizarte Esku-hartzearen Hitzarmeneko 2. kategoriaren arabera.

Zerbitzuaren beharren arabera zehaztu beharreko ordutegia. Berehala lanean hasia.

Inguru geografikoa: Bizkaia

Hautagaitzak otsailaren 21ra arte jasotzea.

Kontaktua: hautaketa@sortarazi.org (Erreferentzia: hezitzailea)